

Lan-koadernoa
Bigarren zikloa

Ale eta mundu-bola magikoa

Sibila Vigna



Intermón Oxfam

Lan-koadernoa
Bigarren zikloa

Ale eta mundu-bola magikoa



Intermón Oxfam

Aurkibidea

Nazio Batuek Milurtekoaren Agiria sinatu zuten 2000. urtean, non hitz eman zuten Milurteko 8 Garapen-Helburuak (ODM) beteko zituztela, 2015erako muturreko pobrezia erdira jaisteko lehen urrats gisara.

Estatuei beren hitza bete dezaten exijitzeko, GKE-en Koordinakunde estataleko 400 erakunde baino gehiago — tartean Intermon— Zero Pobrezia izeneko kanpainari atxiki gatzazkio.

Ale eta mundu-bola magikoa

Bigarren zikloa

Lan-koadernoak ikasleentzat

Sortaren zuzendaria: Raquel León

Autoretzaren koordinazioa: Gemma Bello eta Montse Riera

Akolkularitza-batzordea: M. Àngeles Alié, Carme Batet, Mireia Claverol, Núria Ensesa, Marga Florensa, Israel García, Joan Pere Guzmán, Laura Martí, M. Jesús del Olmo, José Palos, Desiderio de Paz, Ferran Polo, Patricia Quijano, Maria Rico, Teresa Riera, M. Llúisa Ruiz

Ekoizpenaren koordinatzailea:

Elisa Sarsanedas

Azaleko eta barruko diseinua:

Estudi Lluís Torres

Itzulpena: Jexuxmari Zalakain

1. argitaraldia: 2006ko uztaila

© Autoretza: Sibila Vigna

© Ilustrazioak: Àngel Sauret

© Intermón Oxfam

Roger de Llúria, 15. 08010 Barcelona

Tel. 93 482 07 00 . Faxa: 93 482 07 07

info@IntermonOxgam.org

ISBN:

0. "Ale eta mundu-bola magikoa" 4

1. Ale-ren istorioa 14

2. Keita-ren herria 15

3. Galduta gaude! 16

4. Eta nola gabilta etxean? 18

5. Osasun-arazoak 20

6. Kotoi-uzta 21

7. Jo dezagun erroetara 22

8. Zero pobrezia gaurdanik! 24

Ale eta mundu-bola magikoa



1. atala

On Benitoren oparia

Alek beste bira bat eman dio mundu-bolari. Hainbat dira ezagutzen ez ditugun herriak..., baina denbora aurrera doa eta mundu-bola erantzun baten zain dago. Zer gertatuko ote da herri baten izena esaten badut? Oraindik ezin du sinetsi gertatzen ari zaiona. Zer esango ote dio Danik kontaktzen dioenean?

Alek hiruhileko notak jaso zituenean hasi zen dena. Irakasleak zorionak eman zizkion. Notarik altuena zeukan natur zientzian. Biologian iaioa da Ale. Dani, bere lagunik onena, adarra jotzen aritu zen egun osoan: "Alexander doktorea" esaka. Horrela, broma artean hasi zen Ale medikuntza ikasteko asmoa aztertzen. Gaixoak sendatuko zituen eta, gainera, diru asko irabaziko zuen, seguruenik.

Gauza horiek pentsatzen ari dela, etxerako bidean, On Benito topatu du etxe-atarian. Ale poztu egin da, eta pausoa arindu du hari notak erakustearren. On Benito jubilatuta dago, eta oso maitatua da herrian. Bilobarik ez dituen arren, neska-mutiko guztiak ongietorriak izan ohi dira haren etxean.

—Kaixo, Ale. Zer moduz notak? —On Benitok, agurtuz.

—Oso pozik nago, Benito. Irakasleak dio oso ona naizela natur zientzian —erantzun Ale irribarre zabalez. Eta, beraz, erabaki dut medikuntza ikasiko dudala, hazten naizenean.

—Zein ederki, Ale! Biziki pozten naiz. Sendagile on asko behar dira mundu honetan. Nik ere medikuntza ikasi nahi nuen, baina gure garaian oso zaila zen ikaske-ta horiek egitea.

—Zergatik hori? Ez al zegoen unibertsitaterik?

—Jakina baietz. Baina, garai hartan denek ezin zuten ikasi, diru faltan. Gure etxean pobre samarrak ginen, beste hainbat familia bezala.

Alek zabal-zabalik jarri ditu begiak.

—Afrikan bezala, On Benito?

—Hainbeste ere ez, baina kontua da oso gaizki pasatu genuela. Gerra-urteak eta gerraondokoa oso gogorrak izan ziren... Oso zaila zen ikastea eta asko gosez bizi izan ziren.

—Bada, orain zoria dugu, Euskal Herria ez baita herri pobrea —Ale lasaituta.

—Egoera asko aldatu da gure herrian, Ale, baina oraindik ez dugu lortu bizimodu duina pertsona guztientzat. Familia askok doi-doi ordaintzen ditu bere oinarrizko gastuak, milaka lagunek ez dute lanik topatzen eta hainbat jubilatuk oso pentsio eskasak dituzte.



—Baina munduan badira herri oso-oso pobreak, ez da?

—Bai, hala da, Ale. Oso egoera injustua da. Ikusiko duzu, sendagile modura asko lagundu ahal izango diezu premia gehien dutenei.

Isilik geratu dira. Zorionekoa dela pentsatzen du Alek. Batzuetan Daniren bideo-jokoak gutuziatzen ditu, edo bere lehengusuen igeritoki bikaina, baina, egia esan, berak ez du ezeren premiarik.

On Benito ere pentsakor geratu da. Minutu batzuen buruan, altxatu egin da, erabakimenez.

—Etorri, Ale. Zerbait berezia erakutsi behar dizut!.

Ale etxera sartu da, eta ikusi du On Benitok hautsez beteriko kutxa bat hartzen duela armairu baten gainetik. Mahi gainean jarri eta putz egin dio estalkiko hautsari. Doministiku egin du Alek.

—Zer da? —galdetu du jakin-minez.

—Asmatu zuk zeuk —jubilatua irribarre misteriosuz.

Alek arduraz ireki du estalkia. Barruan mundu-bola zahar bat dago, oina doratua duela. Etsipen pixka batez begiratu dio. Kutxatik atera eta ardatzean bira eragin dio.

—Ez da edozein mundu-bola, Ale. Amonak eman zidan, hil hurrean, oso aspaldi.

Emakume hari buruzko ipuini bitxiak gogoratze ditu Alek:

—Egia al da zure amona sorgina zela?

—Halako zerbait, Ale —On Benitok irribarrez. Edozein modutan, oso sorgin ona eta jakintsua zen nire amona. Belarren bidez sendatzen zuen jendea, eta aholku ematen zion haren bila zetorrenari.

—Ezagutu izan banu...

—Bada, ni oso zaharra naiz jadanik mundu-bola hori erabiltzeko. Zurea da. Hartu. Mundua ezagutzeko lagungarri suertatuko zaizu, eta sendagile ona izateko ere bai.

—Benetan, On Benito?

—Bai, mutiko. Agudo, joan etxera eta ondo zaindu opari hori. Gogoratu mundu-bola berezia dela —On Benitok begi bat kliskatuz, agur eginez.

2. atala

Lege viam tuam

Afaldu ondoren, azkar igo da Ale bere gelara, eskolako lan bat burutzera. Aita eta ama asko poztu dira semearen nota onak ikusita. Ale ere oso pozik dago. Argia piztean, mundu-bola antzeman du idazmahaiaren gainean. Erdi ahaztuta zeukan. Bira eragin dio. Zer adierazi nahi ote zion On Benitok bola berezia zela esatean? Alek ez dio ezer berezirik ikusten, zahar samarra dela izan ezik. Mapak kolore argikoak ditu eta letrak kaligrafia ederrean idatzita daude: Amerika, Europa, Afrika, Ozeania... Metalezko beso batek, oker eta doratuak, inguratzen du alderik alde, eta oinarri borobilean finkatzen. Hauts askotxo dauka oraindik. Alek zapi bat hartu eta arretaz garbitu du. Oinarriaren hauts azpian hizki grabatuak agertzen dira, letra txikiz eginak. Tiraderatik lupa hartu eta irakurri du: *L* bat, *E* bat, *G* bat, beste *E* bat...

Testu osoak honela dio: *Lege viam tuam*. Latina ote den pentsatzen du Alek. Zer esan nahi ote du? Gelako liburutegitik, latinezko hiztegi bat hartu du. Minutu batzutan azterturik, mundu-bolaren mezua itzultzea lortu du: "asma ezazu zure bidea". Intrigaturik eta pentsakor, esaldia ozenki errepikatzen hasten da Ale: *lege viam tuam, lege viam tuam, lege viam tuam...*

Bat-batean, idazmahaitik etorritako zaratatxo batek piztu dio arreta: mundu-bola biraka dabil! Beldurturik, ateraino atzeratu da Ale. Segundo batzuen buruan, ordea, mundu-bola geratu egiten da, eta esaldiaren hizkiak distira dora-tuz argitzen dira. Alek arnasa hartu ezinik begiratzen dio mundu-bolari.

Segundo batzuen buruan, argia itzali egin da, dena lehenengora itzuliz.

Mugitu ezinik dago Ale. Zerbait esan nahirik, baina:

—*Lege viam tuam* —hori baino ezin izan du esan, ahots zalan-tzatiz.

Ez da ezer gertatu. Une batez, haluzinazioren bat izan ote duen pentsatu du Alek.

Mundu-bolara hurbildu, eta errepikatzen du:

—*Lege viam tuam, lege viam tuam...*

Esaldia hirugarren aldiz errepikaturik, mundu-bola berriro abiatu da oinarriko ardatzaren gainean biraka, astiro-astiro. Emeki-emeki abiadura handiagoa hartu du, hainbat segundotan biratu eta gelditu egin da berriro. Berriro argitu da esaldia.

Txundituta dago Ale: bai mundu-bola magikoa! Eta berea zen! Ohean eseri eta berriro jaiki da. Urduri dago. Zer adierazi nahi ote dio esaldiak? Bat-batean, argi bat piztu zaio bere baitan... On Benitok esana zion bere oparia lagungarri suertatuko zitzaiola mundua ezagutzeko. Beraz, oso garbi dago mezua: "aukera ezazu zure bidea". Gai ote zen mundu-bola hura berak nahi zuen tokira eramateko? Eta probatzen saiatzen bazen? Herrialde bat aukeratu eta itxaron besterik ez du egin behar. Zein herrialde ezagutu nahi ote zuen? Hainbat toki zeuden bere ametsetan...





3. atala Keita-ren herria

Ale prest dago bere bola magikoa erabiltzeko. Ingurura begiratu du, inspirazio bila edo. Oharren koadernoan mahai gainean dago, eta bere gutizia gogoratzen du. Badaukat!, badaki nora joan nahi duen.

Alek hiru aldiz errepikatu du ozenki leloa: *lege viam tuam*. Bestetan bezala, mekanismo magikoa abiatu egin da. Azkenean, kemenez bete eta, bolari erreparatuz, dio ahotz dardaratiaz:

—Ezagutu nahi dut... sendagile asko behar dituen herri bat.

Mundu-bola gelditu egin da. Hainbat herri daude argizatuta. Batzuk amerikarrak, baina gehienak Afrikakoak. Eta orain zer? Alek uste du berriro hautatu behar duela. Afrika hautatu du, eta herri bat begiz jo du, mapan horiz margotuta dagoena, izenez Mali. Berehala erabaki du:

—Mali ezagutu nahi dut.

Orain Mali bakarrik dago argizatuta. Ale arnasari ezin eutsirik dago. Zer gertatuko ote da? Bi, hiru segundo joan dira, eta ez da ezer mugitzen. Etsita dago Ale.

—Horrela ezagutu behar al dut mundua?, argitxoak eta koloretxoak ikusiz! Esan dut Mali ezagutu nahi dudala! Entzun al didazu? —esan dio mundu-bolari, euskarritik sendo eutsiz. Hura ukitzean, hankaz gora bota du korrante elektrikoak, bola eta guzti!

Ahuspez geratu da lurrean. Saiatu da altxatzen, baina minbera du gorputza. Are haserreago dago Ale:

—Zer uste ote du burdina-multzo honek?, zaharra izateagatik ez du edozertarako eskubiderik...

Barretxo batek eten du haren protestaldia. Lurretik altxa da eta... Ezin sinets dezake ikusten ari dena! Baso-soilune batean dago. Zuhaitzen artean, etxe goriztak ikusten dira urrunean. Ale begiak itxi eta ireki dabil. Paisaia, lehengoa da. Oinetan mundu-bola dago. Lurretik altxatu eta esan dio:

—Nora ekarri nauzu?

Beste barre txiki batzuk entzun ditu atzeko partean. Jiratu, eta neskato bat ikusi du, barrez hari begira, eskua ahoan duela. Bederatzi bat urte izango ditu, Alek bezala. Larru iluna du, eta ilea txirikordatan orraztuta darama, koloretako xingolez apainduta.

Alek ezin dio emozioari eutsi, eta harengana hurbildu da, antsiatz betetik.

—Nor zara?, non gaude?

Neskatoak barrea etenda, serio-serio begiratu dio:

—Nor zara zu? Zertara etorri zara nire herrira? —frantsesez.

Ale nabarmen geratu da, masailak gorri:

Ale-xan-der naiz —dio, erdi totelka, ikasgelako frantsesa gogoratu nahirik—, baina Ale esaten didate denek. Euskal Herritik nator, ez dakit ondo nola. Zure laguna izaten uzten badidazu, nire istorioa kontatuko dizut —keinu xeratsua eginez.

Neskatoak serio begiratzen dioenez, eskua luzatu dio, pertsona nagusien erara. Orduan neskatoak, berriro irribarretsu, Alek luzatutako eskua hartu du.

—Keita naiz. Hango hura nire herria da.

—Zein tokitan gaude? Zergatik mintzo zara frantsesez? —galdetu dio Alek, nahastuta.

—Malin gaude, Ale. Nire herrian hizkuntza asko mintzatzen dira, baina eskolan frantsesa bakarrik ikasten dugu. Nolatan ez dakizu non zauden?, galdu egin al zara? —Keitak jakin-minez.

—Nahi baduzu, jesarri eta kontatuko dizut —proposatu du Alek.

Zuhaitz handi baten sustraietan jesarri dira. Keitak fruta horiztak atera ditu zorrotik, eta adiskide berriari eskaini dizkio.

Bere frantses eskasa erabiliz, ahal duen moduan saiatzen da Ale bere istorio bitxia azaltzen. Neskatoak ez du interes handirik "bidaian", baina Euskal Herriari buruzko hainbat galdera egiten ditu. Jakin nahi du nolakoa den Aleren herria, zertan jolasten duten hurrek, zer jaten duen jendeak eta botikak garestiak ote diren. Alek, berriz, den-dena jakin nahi du Maliri buruz. Bat-batean, dei larria entzun da, herriatik datorrena.

—Keita, Keita!

Neskatoa agudo altxa da.


—Ama da. Zerbait gertatu da; banoa!

—Itxaron! Ez nazazu hemen utzi. Joan al naiteke zurekin?

—Ondo da, etorri. Baina, arin! —dio Keitak herrirantz korrika.

Alek lurtean ikusten du mundu-bola. Ezin du galdu. Ingurura begiratu eta zulo sakon bat topatu du zuhaitzaren sustraien artean. Bola bertan sartu eta adar lehorrez estali du sarrera. Keitaren atzetik abiatu da korrika, etxeen artean dauden bidexketatik barrena. Joanean, mutikoak, neskatoak eta emakume batzuk ageri dira, Aleri harrিতuta begiraturaz.

Azkenean, Keita besteak bezalako etxe batean sartu da, pezo gorritzaz eraikia hura ere. Ale, ia arnasarik gabe, kanpoan geratu da, zer egin ez dakiela... Kalaka entzuten da barruan, Keita eta bere ama dira. Haurtxo baten negarra entzuten da. Ama urduri dago. Zerbait txarrik gertatzen da. Ale kezkatzen hasita dago.





4. atala

Zerbait egin beharra dago!

Une baten buruan, Alerentzat amaiezina, etxeko ate-parean agertu da Keita, eta keinu egi dio Aleri etxera sar dadin. Emakume bat, begiak gorri-gorri, atera da haren bila, eskua luzatuz. Alek ez du haren mintzoa ulertzen.

—Haidara da, ama, eta ongietorria eman dizu bomu hizkuntzaz, gure hizkuntzan alegia —Keitak azalpenak emanez.

Ondoren, egurrezko sehaskari begira jarri da Keita, han baitago haurtxoa lo:

—Nire nebatxoa da, Mody. Amatxo kezkatuta dago, sukarr handia duelako. Ez du jan nahi eta sukarra ez zaio jaisten. Gainera, aita kotoi-alorretan lanean dabil, eta ez da etorriko egun batzuk pasa arte...

Alek konponbidea bilatu nahi du, eta dio:

—Keita, goazen arin sendagile baten bila —Keita eskutik hartuz.

Keitak ezetz dio, buruari eraginez:

—Malin oso sendagile gutxi dago, eta oso garestiak dira. Sikasso-raino joan behar-ko genuke sendagile baten bila, hura baita herririk hurbilena. Eta, gainera, ez genuke behar beste dirurik izango hari ordaintzeko.

Alek, poltsikoan begiratu eta konturatu da ez daukala dirurik. Eta edukita ere, ez luke ezertarako balioko bere diru europarrak. Lotsa sentitzen du lehentxeago pentsatutakoaz. Batek sendagile izan nahi duenean, gutxienekoa da dirua.

Haurtxoa esnatu egin da, eta negarrez dago. Ale hurbildu eta kopetan paratu dio eskua. Bero-bero dago. Amak besoetan hartu eta kantuka hasi zaio. Minutu batzuen buruan, haurtxoa isildu egin da, Haidararen kantua baino ez da entzuten.

—Zerbait egin beharra dago! —dio Alek Keitari begiratu. Norbaitek sendatu beharko du Mody!

—Bai, badago —erantzun Keitak. Toumani da herriko azken agure jakintsua. Berak ongi ezagutzen du oihanaren boterea eta sendabelarren ahalmena gaixotasunak sendatzeko. Toumanik bizi asko salbatu ditu.

—Aztia izango da!, On Benitoren amona bezalakoa. Zeri begira gaude haren bila joateko? —Alek itxaropentsu.

Orain, Keitaren ama da ezezkotan dagoena. Alek ez du ulertzen haren mintzoa, baina ahots larria du.

Keita amarekin hizketan ari da. Gero Aleri azaltzen dio agurea familiari bisita egitera joana dela, eta komunitatera iristeko egun bateko ibilaldia egin behar dela.

—Goazen haren bila, Keita. Egongo da autobusen bat...

—Ale, alde honetan ez dago autobusik, eta komunitatean ez daukagu autorik ere. Amari esan diot oinez joango naizela Toumaniren bila. Bidea luzea da, baina ez dut nahi nire nebatxoa hiltzea.

Alek, berehala hartu du erabakia:

—Zurekin joango naiz, Keita.

Ama-alabak pozik jarri dira. Hurrengo egunean aterako dira, goizean goiz, berorik txikieneko orduak aprobetxatzeko.

Amak, patiora atera eta sua piztu du. Keitaren etxeak, beste etxeek bezala, patio handi bat dauka, non janaria prestatu ez ezik, familiako jardunik gehienak egiten diren. Berehala zabaldu da usain gozoa.

—Ondo elikatu beharra daukazue. Bidea luzea baita —dio Haidarak, jaten ematen dien bitartean.

Afaldu duen arren, Alek ez du baztertzen zopa ederra eta artozko morokila.

Afaldu ondoren, Keita eta Ale lotarako prestatu dira. Haidara haurtxoaren ondoren geratua da, geldi-geldi. Aleri kosta egiten zaio lo hartzea. Gertatu zaiona berrikusi eta ametsetan ote dabilen galdetzen dio bere buruari. Eskuan atximur egin eta min ematen dio; ez dago ametsetan. Gurasoak kezkatuta egongo dira, seguru. Pazientziaz eraman beharko dute, ez baita etxera itzultzeko unea. Keitari eta Mody txikiari lagundu behar die. Etxolaren ilunpean zerbait antzematen saiatzen da Ale. Haurtxoa lo dago, ama zain duela. Begiak itxi eta lotan geratu da.



5. atala Bide luzea

Astindutxo batek esnatu du Ale. Keita da, joateko ordua dela esanaz. Ale erdi lotan dago, baina patiora atera da aurpegia garbitzeko. Badator eguzkia. Haidarak pake-tetxo bat prestatu die, jatekoaz, eta bidean kontuz ibiltzeko eskatu die.

Ale eta Keita herritik irten orduko, belar handiz betetako bideari ekin diote, zuhaitzen artean. Adaxketatik txorien eta tximuen agurra entzuten da, karraskaz eta txilioz. Eguerdi aldera, hainbat ordu egin ondoren, ederki jotzen du beroak. Nekatuta, jatera eseri dira zuhaizpean.

Amaitu ondoren, bideari ekin diote berriro, atsedanak indarberriturik. Ordu baten buruan, oihanetik irtetean, ikuspegi erabat desberdina ageri da. Begia iristen deneraino, labore-alor zabalak ageri dira. Elur-malutak dirudite. Alek ez du inoiz horrelakorik ikusi:



—Keita, zer da hori?

—Kotoi-alorrek dira. Mali kotoi-ekoizlerik handienetakoa da munduan.

Ale harrituta dago:

—Beraz, Mali herri aberatsa izango da. Arropa eta ehunak egiteko erabiltzen da kotoia, botikatan, eta beste gauza askotarako.

—Ba, nik ez dut ulertzen, Ale. Aitak, Malin beste hainbat pertsonak bezala, oso gogor lan egiten du kotoian urtean zehar. Baina uzta saltzen duenean, gutxi irabazten du. Gainera, Gobernuak beti dio ez daukala dirurik klinikak eta eskolak eraikitzeko, botikak erosteko... Misterio bat da.

—Agian Toumanik jakingo du zerbait kotoiaren misterioaz, jakintsua denez...

Keitak begiak tristaturik begiratu dio Aleri, eta honek pentsamendua asmatu dio:

—Goazen, Keita. Jarrai dezagun. Ikusiko duzu nola Toumanik sendatzen duen zure nebatxoa...

—Hala izan dadila, Ale. Baina haurrak gaixotzen direnean, ez dira beti sendatzen. Toumanik dio, adinarekin, ahalmena galtzen ari dela. Gurasoek diote, Toumani oso jakintsua izan arren, gaixotasun batzuk herriko sendagileek eta botikek bakarrik sendatzen dituztela.

Ale eta Keita lurrezko bidetik doaz, alor landatuen barrena. Gizonezko eta andrazko asko ikusten dira kotoi-alorretan lanean. Bat-batean, Keitak algaratxo bat egin eta korrika doa bidetik datorren gizon batengana. Aita da, Moussa. Moussak irribarrez hartu du Ale. Etxera zihoala esan die bi lagunei. Etxean zerbait txarrik ote den irudipena duela esan die, gaez amets egin baitu. Alek begiak zabalik begiratzeko Moussari; ordu batzuk direla, gauza harrigarriak gertatzen ari dira bere begien aurrean, azaldu ezinak.

Mody oso gaixo dagoela esan dio Keitak aitari. Moussa pentsakor geratu da, kope-tako izerdia xukatuz. Aurrera egitea beste erremediorik ez dute, agure jakintsua topatu arte.

6. alea

Kotoiaren misterioa

Ale, Keita eta Moussa bidean jarri dira berriro. Lau orduren buruan, komunitatera iritsi dira, non Toumaniren familia bizi den. Agurea, etxeke patioan eserita dago. Agurtu ondoren, hiru bidaiariak patioan eseri dira, leher eginda. Toumani agureak esan die zaharturik dagoela, eta ez duela indarririk etxera itzultzeko. Familiarekin geratuko da bizitzen. Edozein modutan, botika berezi bat prestatuko du Mody txikia sendatzeko.

Itxaroten daudela, familiako kide batzuk iritsi dira etxera, neke-itxuraz. Kotoi-alorretatik datoz. Aminata Toumaniren iloba batek arroz gisatua dakar, kazola batean, eta denak eseri dira elkarrekin jateko. Sangare Aminataren senarrak jaioterriaz galdetu dio Aleri. Alek galdera guztiei erantzuten die, eta kotoiaren misterioaz zerbait ikasten saiatzen da. Sangarek eta Aminatak azaldu die zertan den misterioa.

—Guk, Maliko jendeak, gastu handiak ditugu kotoia hazteko, baina ez dugu inolako laguntzarik jasotzen. Dena gure poltsikotik irteten da. Irabazten dugun bakarra azokan saltzen denetik ateratzen da —dio Aminatak.

—Aldiz —dio Sangarek—, Ameriketako Estatu Batuetan eta European dirua jasotzen dute Gobernuetatik kotoia hazteagatik. Badakizu zer dakarren horrek?

—Bada... ez, ez dakit —Alek, gero eta jakingura handiagoz.

—Ameriketako Estatu Batuek eta Europak guk baino merkeago sal dezakete kotoia. Eta ondorioz, prezio orokorra asko jaisten da —dio Sangarek.

—Eta horregatik, Malin, gero eta gutxiago irabazten dugu gure kotoiarekin —Keitaren aitak.

Ale nahastuta dago. Ezin du ulertu nola gertatzen den egoera bidegabe hori. Nola da posible pertsona aberatsek pobreak baino diru gehiago jasotzea lan berbera egiteko?

Alek galdera berri bat egin nahi du, baina une horretan etxetik irten da Toumani agurea. Buztinezko ontzi bat eman dio Keitaren aitari. Ohar batzuk egin dizkio, bomuz. Moussa, Keita eta Alek eskerrak eman dizkiote agureari, familia agurtu eta bideari ekiten diote berriro, presaz.

Iluntzen ari da. Alek uste du ez dela gauza izango bide osoa oinez berregiteko. Keita ere nekatuta dago, baina biak daude kezkatuta Modyren osasunagatik. Eskutik hartuta, Moussari jarraitzen diote, zangokada handiz baitoa.

Ilundu du, erabat, eta motor-hotsa entzun dute atzetik. Jiratu eta auto baten argiak azaldu dira. Moussak keinu egiten dio bi besoak altxatuz. Alek ere bai. Keitari begiak argitu zaizkio:



–Kotoi-kooperatibako kamioia da!

Atzeko aldera igo dira hirurak, non hainbat lagun doazen, antxume bat eta pare bat oilo. Bi emakumek lagundu egin diete eroso jartzen.

Etxera iritsita, Haidara irten da haiek hartzera, begiak bustita. Aleren bihotzak punpa egiten du. Arin sartu dira etxera...



7. atala Mali bihotzean

Etxe barruan, hirurak joan dira haurtxoaren sehaska ondora. Ilunpetan, hantxe dago Mody geldi-geldi. Moussak izenez deitu dio, eta haurtxoak samur begiratu dio.

–Sukar handia du oraindik, gero eta ahulago dago. Ez du titirik hartu azken orduotan –Hadarek.

Aitak haurtxoa biluztu eta gorputz osoan igurzten dio Toumanik belarrez prestatutako ukendua. Agurearen oharrei jarraituz, Keitak eta amak pitxar bat atera dute, ur beroaz bete eta gatza eta azukrea bota dute bertan. Hoztutakoan, haurtxoari eman diote edateko, kaikua erabiliz. Modyk ez du ia indarririk ura irensteko. Inork ez du lorik egiten, haurtxoari begira, eta ahopeka hitz egiten dute. Nekatuta egon arren, inork ezin du lorik egin.

Eguzkia irtetean, Modyk indar handiz egiten du negar. Haidara, besoetan hartu eta bularra ematen saiatu da. Haurtxoak berehala heldu dio titiari, tiraka. Aitak kope-ta ukitu eta hala esan du:

–Ez du sukarririk gehiago!

Keitak barre egin du, eta adiskidearen besoari heldu dio. Ale negarretan dago kasik. Haurrari begira daude denak, eta hark titiari itsatsita jarraitzen du.

Goizerdian, hobeto dago Mody. Familia lasai samar dago. Haidara hari kantuan dabil, urruma egiten dio eta ez du inoiz bakarrik uzten. Auzo batzuk etxera hurbiltzen dira haurtxoa ikustera. Moussa eta Haidera bromatan dabilta, eta seme europartzat aurkezten dute Ale. Barrezka hasten dira denak, larritasuna ahaztu nahirik.

Bat-batean bere Euskal Herriko familiaz gogoratzen da Ale. Etxera itzultzeko tenorea da. Horrela esan dio Keitari. Neskatoa lurrera begira geratu da unetxo batez. Tristatu egin dira biak, banandu beharraz.

Familiari agur egin dio Alek. Moussak eta Haidarak laster itzultzeko eskatu diote. Keitak elkar ezagutu zuten soiluneraino lagundu dio. Mundu-bolak ezkutalekuan jarraitzen du.

—Itzuliko al zara? —Keitak

Alek serio begiratzen dio

—Itzuliko naiz, bai. Esan al dizut sendagilea izan nahi dudala?

Neskatoak paketetxo bat eman dio, koloretako oihaltxo batean bilduta.



Alek mundu-bola oratu du euskarritik, formula magikoa hiru aldiz esan eta etxera itzultzea eskatu dio. Astinalditxoa sentitu du berriro, eta unetxo baten buruan, bere gelako lurrean dago etzanda. Txunditu samar dagoen arren, lurretik jaiki eta inguruari erreparatu dio. Dena dago berak utzi bezala.

Kosta egiten zaio gertatu zaiona sinestea. Keita darabil gogoan, haren gurasoak, Mody txikia eta Malin ezagututako pertsona guztiak. Ziur dago berriro ikusiko dituela... Bat-batean, Keitak eman eta poltsikoan gorderik duen paketetxoaz gogoratu da. Zabaltzean, altxor bat ikusi du: kotoi-landarearen maluta zuria eta harroa.



1 Aleren istorioa

Aleren istorioa irakurri ondoren, behatu marrazkiak eta deskriba ezazu eszena bakoitzean gertatzen dena.



2 Keitaren herria




Istorio sinestezina bizi izan dut. Orain gehiago jakin nahi dut adiskide Keitaren herriaz. Lagunduko al didazu ezagutza hori egiten?

Osa ezazu Maliri buruzko informazioa

Maliko Errepublika _____ kontinentean dago.

Hiriburua _____ da.

Haren azalera 11.240.000 km² karratukoa da, Euskal Herria baino _____ bider handiagoa. Maliko lurraldea _____ ibaiak zeharkatzen du.



Malik 13.007.000 biztanle ditu, eta hainbat talde etnikok osatua da: banbarak, malinkeak, senufoak, tuaregak, peuleak, dogonak eta bomuak, besteak beste. Frantsesa ez ezik, talde etniko bakoitzaren hizkuntza mintzatzen da.

Ipar eta erdialdeko eskualdeak aski mortuak direnez, jenderik gehiena hegoaldean biltzen da, ibaien alde banatan.


Malin erlijio guztiak bakean bizi dira, elkar errespetatuz. Jendea oso alaia da. Asko gustatzen zaigu barre egitea, baina beti ezin dugu. Nire herrian oso arazo larriak ditugu, konpondu nahi genituzkeenak.




Aldera itzazu ondoko datuok...

Euskal Herrian ia jende guztiak daki idazten eta irakurtzen; ur edangarria daukate etxean.

Malin, 100 pertsona nagusitik




81ek ez daki ez irakurtzen ez idazten



52k ez du ur edangarririk etxean, ez komunitatean.

Euskal Herrian zein Malin jende pobrea bizi da, baina...



Malin, 100 lagunetik 72 oso pobreak dira



Euskal Herrian, 100etik 1 bakarrik

Zer irizten diozu egoera horri?

3 Galduta gaude!

Akats bat dela medio, mundu-bolak toki misteriotu batera bidali ditu Ale eta Keita... Ez daki zenbat denbora egon behar ote duten han. Lagun iezaiezu pertsona osasuntsu eta zoriontsu modura bizi ahal izateko behar duten guztia bilatzen. Bil ezazu zirkulu berde baten barruan, zure ustez ezinbestekoa dena, eta zirkulu horian, hain beharrezkoa ez dena.



Aukeratu dituzun elementuak kontuan harturik, zerrenda itzazu pertsonok ditugun ezinbesteko premiak:

Ezinbesteko premiak aseta edukitzea munduko gizon-emakume guztion eskubidea da. Irakur ezazu hurrengo testu hau:

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

1. artikulua: Gizaki guztiak aske dira jaiotzez eta berdinak duintasunez zein eskubidez.

25. artikulua: Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongizatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, bizitokia, mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak

26. artikulua: Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea

1. Zure ustez, pertsona guztiek aseta al daukate giza-eskubide horiek? Zergatik?

2. Zure ustez, Euskal Herrian pertsona guztiek al daukate aseta ezinbesteko premiak? Eta Malin?

3. Zer irizten diozu egoera horri? Hitz egin ezazu horretaz zure kideekin

4 Eta nola gabiltza etxean?

Azken gerratea eta gerraondokoa oso latza izan zen Euskal Herrian... Ondoko lekukotzak institutu bateko gazteek hartuak dira, beren aitona-amonei galde eginez, historiaren berri zuzena edukitzeko asmoz.



© Familia Mayol



“Berrogeigarren hamarkadan gerran baino gosete handiagoa izan genuen. Kartilla bat eman ziguten, dena zegoen errazionatuta: olio, azukrea”. Asun Betzuen

“Ni ez nintzen eskolara joan, etxean geratu behar bainuen neba-arreba txikiak zaintzen, ama jatekoaren bila joan zedin”. Teles Isuntza


“Dirua zeukanak bakarrik ikas zezakeen; dirurik ez zeukanak, deus ez”. Isi Bergara

“Jendea mingorritz hiltzen zen. Amari seme bat hil zitzaion horrela. Hazteria ere bazegoen, atzamarren artean azkura ikaragarria ematen zuena. Botikak behar izanez gero, oso urrun joan beharra zegoen, eta gaitz erdi, oso eskasak baitziren botikak”. Estanis Boroa

Iturria: Años de pobreza contados por nuestros abuelos y abuelas. Seminario de Fuentes Orales, IES Giner de los Ríos, Alcobendas (Madrid)



© Familia Mayol

- 
1. Zein da gehien harritu zaituen lekukotza? Zergatik?

 2. Nolakoa zen bizimodua azken gerratean eta gerraondokoa?

 3. Ezinbesteko premietatik zeintzuk ez zeuden aseta?

 4. Zure ustez, zergatik zen hain zaila ikastera joatea?

 5. Zer gertatzen zen jendea gaixotuz gero?

 6. Alderik ba al dago orduko eta gure egunetako egoeren artean?

Zure ustez, ba al dago pobreziarik gaur egun Euskal Herrian? Irakur ezazu ondoko lekukotza:

Mertxek lana eta etxebizitza topatu ditu...

“Bost seme-alaba ditut. Lehen, egurrezko etxola batean bizi nintzen, ez nuen jatekorik, ematen zizkidaten apretak janzen zituzten nire umeek, erdi apurtuak, eta lotsa ematen zidan. Orain, ordea, zapatilak behar dituztenean, gauza naiz erosteko, baina horrek ez du esan nahi pobreziatik irten naizenik. Hala ere, harro nago umeak aurrera ateratzeko gai naizelako... Etxetik goizeko bostetan irten behar dudan arren, lanerako, lasai eta burua zut ikusi nahi ditut nire umeak.

Nire lehen lanegunetik hasi nintzen lankideekin elkartzen. Denetan lagundu zidaten, nola lan egin behar nuen irakatsiz, garraioa non hartu azalduz. Ez ninduten zapuztu, alderantziz, haietako beste bat bezala hartzen ninduten. Eta nik nioen nire artean: “haiek bezalakoa naiz, zergatik joan behar dut buru-makur?”. Atzera begiratzen dut askotan, eta bizitzan zenbat galdu dudan pentsatzen dut. Urtetan, etxezuloan bizi izan naiz, munduaren berri izan gabe. Oraindik ez naiz pobreziatik irten, baina lehen urratsa emanda daukat”.

Iturria. Cuarto mundo



Zer aldatu da Mertxeren bizimoduan?

Ezinbesteko premietatik zeintzuk zeuzkan aseta Mertxeren familiak, hura lanean hasi baino lehen?

Zure ustez, nola sentitzen zen Mertxe etxola batean bizi eta lanik gabe?

Zure ustez, nola sentitzen dira pobrezian bizi diren pertsonak? Zergatik?

5 Osasun-arazoak



Oso sendagile gutxi daude Malin, eta oso garestiak dira.
Oso urrun joan beharra daukagu haietako baten bila.
Eta gainera ez daukagu dirurik hari ordaintzeko.
Gobernuak dio ez duela dirurik klinikak eta eskolak eraikitzeko, botikak erosi eta garraio publikoa ezartzeko. Oinez joango naiz Toumaniren bila. Ez dut nahi nire nebatxoa hiltzea.

Idatz ezazu idazlan laburra azken aldiz gaixorik egon eta sendagilearengana joan zinekoa jasoz.

1. Nola joan zinen kontsultaraino?

2. Nork ordaindu zituen kontsulta eta botikak?

3. Zein alde dago Modyren eta zure egoeren artean?


4. Zer gertatzen da Euskal Herrian inor gaixorik egon eta dirurik ez badauka? Eta Malin?

Osasuna zaintzeak garrantzi handia dauka, bizitza luze eta osasuntsua izatekotan. Gure herrialdean edonork bizi daiteke 79 urte edo gehiago... Malin, jendeak 52 urte betetzen ditu askoz jota...

Zure ustez, zergatik da alde hori?
Zer iritzi duzu horretaz guztiaz?

6 Kotoi-uzta

Kotoia hazten duten nekazariak zarete. Zuen egitekoa da kotoi-uzta ona atera eta azokan saltzea. Adore eta zorte on!




1. Ados al zara jolas honen emaitzez? Zergatik?

2. Zertan du antzik jolas honek errealitatearekin?

7 Jo dezagun erroetara

Ondoko irudiek galdu dute izenburua. Erabaki zein izenburu ezarri irudi bakoitzari, eta lot itzazu gezi baten bitartez. Munduan dagoen pobrezia buruzko sustrai batzuk aurkituko dituzu.


Herrialde aberatsek ez dute beren hitza betetzen, pobreziaekin amaitzeko...



Munduan nahikoa aberastasun badago guztiontzat, baina aberatsek metatzen dute gehien-gehiena.

Milioika nekazari pobrezian bizi dira, merkatu-lege injustuen erruz.





Pobreziaren zergati batzuen berri baduzenez, egin zerrenda eta asmatu konponbide bana arazo bakoitzeko.

Pobreziaren zergatiak

Konponbideak

8 Zero pobrezia gaurdanik!



2000. urtean 189 herrik onartu zuten Milurtearen Garapen-Helburuak pobrezia erazteko 2015erako... Baina aldaketak mantsoegi doaz...

Gobernuek hitza bete beharra daukate! Horretarako, kanpaina bat abiatua da munduan zehar, non zu bezalako milaka eta milaka herritarrek parte hartzen duten. Behean dituzu haien proposamenak. Irakur eta konpara itzazu 7. jardueran zuk zeuk egindako proposamenekin:

- Laguntza gehiago herrialde eta pertsona pobreenentzat.
- Merkataritza-lege injustuak aldatzea.
- Iparreko herrialde aberatsek nekazaritza esportatzeari dagokionez dituzten laguntzak kentzea.
- Ziurtatzea pertsona guztiek dituztela ezinbesteko premiak aseta: elikadura, osasuna, ur edangarria, etab.

● Gutxien garatutako herrialdeei teknologiaz baliatzen laguntzea.

Idatz ezazu esaldi bakar bat zure lagunei kontatzeko zer iritzi duzun munduko pobrezia buruz.



Eta zuk zer egin dezakezu?

Informa zaitetz eta parte hartu munduko politikari guztiak presionatzeko abiatu diren kanpainen, pobrezia aurkako borrokan parte har dezaten.

Webb orriak bisitatu eta zure herrian edo hirian egiten diren ekintzen berri izan, edo internet bidez parte hartu:

- Zero Pobrezia izeneko kanpaina, estatu espainiarreko GKE-en Koordinakundearena dena: www.pobrezacero.org
- Aitzakiarik Gabe izeneko kanpaina, NBErena dena: www.sinexcusas2015.org
- ODM-**ei buruzko informazioa jaso, NBEren web orrian eta eskola-programan, Eskolako ZiberBusean: www.un.org/Pubs/CyberSchoolBus/spanish**



Intermón Oxfam



Ale-ren istorioak pobrezia kontzeptuan murgiltzen gaitu, hura sorrarazten duten kausen zein handik eratortzen diren ondorioen ikuspegitik begiratuta. Ale-ren istorioa ezagutzearekin batera burutuko ditugun jarduerak lagungarri dira pobrezia gero eta mundu konplexuago eta elkarreragin handiagokoan kokatzeko, hura mantentzen eta indartzen eragina duten prozesu eta fenomeno batzuk seinalatuz.

Lehen mailako hezkuntzako unitate didaktikoen bilduma

Bilduma hau Intermon Oxfamek duen **Herritartasun Globalerako Hezi izeneko** programaren zati da. Inguruko errealitatea hobeto ezagutu eta ulertzeko jarrerak eta baloreak sustatu nahi ditu ikasleen artean, horrela mundu justuago eta elkartasun gehiagokoa eraikitzen aktiboki parte hartzerik izan dezaten.

Lan-proposamen globala, malgua eta ikasleen premietara egokitua da honako hau. Koaderno hau haur-hezkuntzako ikasleentzat pentsatuta dago.



Ziklo bereko beste koaderno batzuk:

GAIA Merkataritza justiziaz
Lauraren urtebetetzea

GAIA Armak kontrolpean
Koloretako tximeletak

GAIA Hezkuntza orain
Ikastea eskubidea da

GAIA Haurtzaroaren eskubideak
Betoren eskola

GAIA Ingurumena eta garapena
Noaga, nola geldiaraz dezakegu basamortua?

ISBN 84-8452-406-X



9 788484 524069

752238